

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2013ko otsailaren 22a. IX. urtea. 2.550. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Ibarrako Gazte Asanbladako kideek agerraldia egin zuten herenegun egitaraua aurkezteko. I.T.

## Herritarren iritzia jaso nahi du Tolosako Udalak Berazubiko aparkalekuak egiteko

Astelehenetik apirilaren 2ra bitarte egin ahal izango dira eskariak; guztira lurpeko 50 aparkaleku egin nahi dituzte, irekiak 18.000 eurokoak, eta itxiak 24.000 eurokoak **02**

## III. Don Bosco Ibilaldia Tolosara iritsiko da, bihar

Auto klasiko eta ikusgarrien helmuga bilakatuko da Geltoki Plaza; parte hartzaileek Lapurdi plazan bazkalduko dute **06**

## Hileko azken ostiraleko mobilizazioak egingo dituzte

Pello Odrizola tolosarrari eragiten dion 1972/2006 doktrina martxoan berraztertuko dute Estrasburgon **04**

## Kabaret emanaldia eskainiko dute Asvinenean

Bihar, 22:00etan emango zaio hasiera ikuskizunari; antzerkia, dantza, musika eta aire akrobaziak izango dira **05**

## Belaunaldi desberdinak elkartuko ditu Gaztetxeak

Ibarrako Gazte Asanbladak Gaztetxetik igaro diren gazteak bilduko ditu martxoaren 1ean eta 2an egingo duten 20. urteurreneko festan **07**

## 12 eragileren aterpe izango dira Abastoseko gelak

Tolosako Udalak herriko eragileei utzi dizkie Abastos eraikineko goiko solairuko sei gela; elkarbanatu egin beharko dituzte, eta urtean behin herrira begirako egitasmo bat antolatu beharko dute elkarlanean **02**



## EZ MOLESTATU

Ez dugu asmorik negu osoan etxetik iriteko. EUSKALTELEN ZUNTZ OPTIKOA daukagu.



**BENETAKO 20 MEGA + PREMIUM TBa**
  
 Hilean **35,8€** soilik
   
ordaindu eta urtobetez.
  
**LINEA BARRA**

**logikaline** San Franzisko, 19
   

 Banatzaile ofiziala

2013/03/17a baino lehen Euskaltelen Zuntz Optikoa alda ematen dutenentzat bako du sustapen horiek. %50eko deskontua 20 M-ko DUOaren eta Premium Telebistaen hileko kutsura, eta %48,7ko deskontua linearen kutsura, aplikatzen diren egunetik hasi eta 12 hilebetik aplikatzen dira. Zuntz optiko eta banda zabalaren 12 hilebetik irauteko konpromisoa. Bako duen eskatutako kargua: 15 € produktua eta beste gabeleko hilebetik bakoitzeko. Bako hartzen ditu estazio finkoetarako deia (4.000 minutu) eta estazio mugikorrerako deia (60 minutu). Zuntz Optikoa erabiltzeko benetaz soilik da deiala alda. Deskontuak ez dago sartuta. Premium Zerbitzu Teknikoa duen lehen hiru hilebetik: kargu horiek gurea, berriz, 3,5 € hileko. BEZa ez dago sartuta.

# Berazubiko aparkalekuen inguruan herritarren iritzia ezagutu nahi du udalak

Ikastetxea zeneko orubean etxebizitzak eraikiko dituzte, eta lurpeko 50 aparkaleku egin nahi dituzte azpian

## Itzea Urkizu

Berazubi, Iurre eta zezen plaza inguruetako bizilagunei eskuorri bat iritsiko zaie, egunotan, buzoira: Tolosako Udalak, Berazubiko ikastetxea zeneko orubean, lurpeko aparkalekuak erosiak litzuzketen herritarrik ba ote den jakin nahi du.

Pasa den ekainean esleitu zitzaion, enpresa eraikitzaileari, Berazubiko lursaila. Etxebizitzaren proiektuan bertan, lurpeko aparkalekuak aurreikusita daude lehen solairuan, etxebizitzentzat; bigarren solairuko aparkalekuak, ordea, saltzeko eraikiko litzuzkete.

Gaur egungo finantziario arazoak medio, ordea, gutxieneko aparkaleku kopurua saltzen ez bada, banketxeak ez du finantziarioz emango. «Benetako interesik ba ote dagoen jakin nahi dugu, bai baitakigu, egungo egoeran, garaje bat izatea ez dela lehentasuneko zerbait. Enpresa eraikitzaileak, ordea, ez zuen finantziarioz lortu ekainean, eta gu geu jarri ginen banketxearekin harremanetan; orubearen jabea Tolosako Udala den arren, azken hitza banketxeak izango du bigarren solairuko aparkalekuei dagokien

## ↓ Aparkalekuak

# 50

■ **Itxiak eta irekiak.** Guztira, 50 aparkaleku eraikiko litzuzkete. Itxiak 24.000 euroko prezioa izango lukete, eta irekiak 18.000 eurokoa.



Ibai Iriarte eta Aitziber Lazkano, aurkezpenean. I. URKIZU

nez», azaldu du Ibai Iriarte alkateak.

Aipaturiko esku orria zonalde horretako bizilagunei bakarrik iritsiko zaien arren, «edozein tolosarrek garajeak erosteko aukera bera» izango duela nabarmendu du alkateak. Informazio guztia, udalarekin bertan nahiz [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net) webgunean eskuratu ahal izango dute.

Horrela, beraz, guztira 50 aparkaleku jarriko dituzte salgai: irekian eta itxiak. Plaza irekiak 18.000 euroko prezioa izango dute, eta itxitako aparkalekuak, berriz, 24.000 euro ordaindu beharko dira; BEZa gehitu beharko zaie prezioei.

Proiektuak aurrera egin dezan, 38 garaje saldu beharko dituzte. Horrela, astelehenean apirilaren 2ra bitarte jasotako eskariekin bilera bat antolatuko du udalak, egoerari buruzko informazioa emateko.

Garaje hauetakoren bat erosi nahi duten herritarrek, 300 euroko diru-gordailu bat utzi beharko dute, «benetan interesa dutela bermatzeko», azaldu du Iriartek. Azkenean aparkalekuak egingo ez balira, gordailua osorik itzuliko litzaiekerosleei.

Berazubiko ikastetxeako orube-

an aurreikusitako aparkalekuak hauek jabetzan salduko ditu Tolosako Udalak; hala ere, udalak berak lehentasuna izango du, aurreneko hamar urteetan, bigarren salerosketen prezioa zehazterakoan, «prezioekin ez espekulatze-ko». Aipatzekoa da, garajeak 2015 urte amaierarako eraikiko litzuzketela.

## Auzotarrekin bilera

Datorren astelehenean, hilak 25, Tolosako Udaleko ordezkariak Iurreko eta Berazubiko auzotarrekin bilduko dira.

Batzarra 20:00etan hasiko da, Paper Eskolako areto nagusian, eta aparkalekuen gaia izango da, jorratu beharreko puntu nagusietako bat.

Honez gain, ordea, TAO sistemaren aldaketa ere hizpide izango dute, batetik. Paper kaleko aparkalekuak publikoak izango dira aurrerantzean, TAO sistema bertatik kenduz, eta udalak erabaki honen zergatia azalduko die auzotarrei.

Era berean, Berazubiko Stadiumeko obren eraginaz ere ariko dira. Lanak hilabete honetan hasiko dituzte, eta obren iraupena, hauen eragina eta antzeko gaiak jorratuko dituzte.

# Eragileek erabiliko dituzte Abastos eraikineko gelak

Urtean behin, Tolosari begirako ekimen bateratua antolatuko beharko dute eragile guztiek batera

## I. Urkizu

Abastos eraikineko goiko solairuko sei gela erabiliko dituzte, aurrerantzean, herriko hainbat eragilek. Mikel Arreseigor zinegotziak nabarmendu duenez, eragileen elkargune izateaz gain, «beren arteko sinergiak sustatzea izango da helburua».

«Tolosa herri bizia denaren erakusle», udalak eragileei gelak eskaintzeko beharra ikusi zuen, eta azken hilabeteotan bileretan elkartu dira, deialde erantzuna eman dieten eragileetako ordezkariekin.

Guztira, sei gela jarri dituzte eskuragarri, eta honez gain, bilera gela handi bat ere bada. Eskaria, ordea, eskaintza baino handiagoa izan da, eta eragile guztien ordutegiak uztartuz, elkarbanatu egin beharko dituzte gelak: «Bileretan, barne-araudia osatu dugu denon artean, eta gelen garbiketa ere beren ardura izango da».

Horrela, astero-astero edo aste-

an behin baino gehiagotan elkartzen diren taldeek giltza bat izango dute, eta noizean behin soilik elkartzen direnek, kultur etxean bete beharko dute eskaera orria, giltza eskuratzeko. Gainera, astelehenean igandera 08:00etatik 23:00etara bitarte soilik erabili ahal izango dituzte gelak.

Oraingoz, 12 eragileren artean banatu dute Abastoseko goiko solairua, eta «eragileentzako erreferentziatzako gune bilakatzea» da udalaren helburuetako bat. Hainbat arlotako elkarrekin arteko sinergia hori bultzatzeko, beraz, urtean behin egitasmo bateratu bat antolatuko beharko dute, Tolosari begira.

Tolosako Udaleko Kultura, Festa, Berdintasuna eta Gazteria sailak kudeatuko dute eremua, eta hilean behin eragileetako ordezkariekin elkartuko dira, jarraipena egiteko.

Oraingoz Altoan, Tik-tak-truk denbora bankua, Gazteok Txapinetan, TOPA, Arpegi taldea, 15M, Tolosako bertso eskola, Tolosako skate taldea, Tolosako Zero Zabor, San Bernardo Eskaut taldea, Txosna batzordea, Urdiña taldea, ikasle mugimenduak eta Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen elkargunea izango dira talde erabil-tzaileak.



Arreseigor eta eragileetako kideak Abastos eraikinean. I. URKIZU

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**GOIKOETXEA**  
sagardotegia

**Sagardo Naturala**

Elbarrena Kalea, Aroztegi baserria, 9  
20490 - Lizartza - Tel.: 609 71 42 03

## ↓ Iragarki laburrak

### LAN ESKARIAK

**Etxeko lanak** eta haurrak zaintzeko autodun emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. 943 696882/606521992

### ESKUALDATZEAK

**Taxi zerbitzua Zizurkilen.** Litzentzia eta autoa eskualdatu nahi ditut. 608 57 59 00.



Tolosako bertso eskolan astean behin elkartu ohi diren eskualdeko bertsozale batzuk, irudian. HITZA

Tolosaldeko bertso-sarea osatu dute Harituz Bertsozaleen Elkargunean. Eskualdeko bertsozaleek badute, aurrerantzean, bertsoan aritzeko eta bertsoa haritzeko aukerarik.

# Bertso-sarea harituz

**Itzea Urkizu** Tolosa

**E**lkarguneari garrantzia ematen dio Mikel Artolak, Harituz-i buruz hitz egiterakoan. Tolosaldeko bertsozaleen elkargunea izango da, hain zuzen, Harituz, «eta ez bertsolariena edo bertso eskolatan aritzen direnena soilik», elkarguneko kideak azaldu duenez. Honela, beraz, esparru honetan aritzeko gogo duen edonoren-tzako sarea abiarazi dute, bailara osora begirako estrategia prestatuz.

Hiru lan ildo nagusi izango ditu Harituz Bertsozaleen Elkargunekoak: transmisioa, sustapena eta ikerkuntza. Hain zuzen ere, Bertsozale Elkartearen ildo berberak jorratuko dituzte, eta «helburua elkarteak egiten duen gauza bertsoa egitea da, askoz ere maila baxuagoan», azaldu du Artolak.

Modu honetara, bertso eskolek

koska bat gora egingo dute, eta «norberak bere herriko ikuspegia izan beharrean, bailarara begira jarri beharko du nolabait». Izan ere, transmisioa ildorik garrantzitsuena izango da Harituz-entzat: «Hori asteroko bertso eskolaren eritmoarekin gauzatzen da, eta oso garrantzitsua da jendeak bertso eskolatan aritzeko aukera izatea. Gabezia garrantzitsua nabaritu genuen hemen, hasieratik: herri batzuetan irakasleak falta ziren, eta beste batzuetan, berriz, ikasle gutxiegi zeuden taldea osatzeko».

Transmisioan aurrera egin ahal izateko zeuden zuloak estaliko dituzte beraz, Harituz-en sarearen bitartez.

Bertsoaren ikerkuntzan nahiz bertsoa sustatzen ere ari dira, arituz eta harituz, «baina bigarren maila batean». Batetik, sustapena bertso munduaren inguruko ekitaldiak eta antzekoak antola-

tzen jorratuko dute, eta horren adibide da, gaur bertan Abaltzketan izango den bertso-sorta kantuen afaria.

Abiada hartu dute, eta hilean behin jarduera bat antolatzea da euren helburua: «Datozen hilabe-



**Bertsozaleen elkargunea da, eta ez bertsolari edo bertso eskolatan aritzen direnena soilik»**

**MIKEL ARTOLA**  
Harituz-eko kidea

teetako ekitaldiak Amasan, Zizurkilen, Anoetan eta Andoainen izango dira».

Azkenik, ikerkuntzari ere gorde diote txokorik, eta dokumentazioa biltzea izango da, beren lehen jarduna: «Tolosaldean bertsolariaren inguruan mugitzen

diren, eta mugitu izan diren zerranda moduko bat egin nahi dugu, eta jende horren inguruko datuak bildu ere bai». Honen harira, bertso eskolatan beren burua ikusten ez dutenek, baina bertsolarietara hurbiltzeko gogoia dutenek, dokumentazioaren atal honetan tartea izango dutela nabarmendu nahi izan du Mikel Artolak: «Esan bezala, asmoa ez da bertso eskolatan aritzen den jendea bakarrik elkartzeko, eremu horretatik kanpokoek ere parte hartzea nahi dugu».

Horrela, beraz, Harituz Bertsozaleen Elkargunekoak helbide elektronikoa eskuragarri du jada, eu-

rekin harremanetan jartzeko; elkarguneko kide izan nahi duen edonork, [harituz.bzt@gmail.com](mailto:harituz.bzt@gmail.com) helbidera idatzi beharko du.

Taldea bere lehen pausok ematen ari den honetan, Tolosaldeko 60 bertsozale bildu ditu jada, Harituz-en sareak. Hemezortzi urtetik beherako hamaika eta bat bertsozale ere bada, ordea, eskualdean; bertako haur eta gazte-txoen bertso eskolak koordinatuzko jomuga ere izango du, beraz, Harituz-ek: «Orain arte, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak egiten zuen lan gehien arlo honetan, herri batzuetan, bereziki. Aurrerantzean, ordea, guk koordinatuko ditugu bertso eskolak».

Estrategia bateratua ariko dira, bada, Harituz eta Bertsozale Elkarteak: «Elkartearen estrategia bertso eskolek ahalik eta modurik autonomoan funtzionatzea da, baina eurekin harremanik galdu gabe; urtean urteko plan bat zehaztuko dugu, beraz, elkarlanean».

Egitasmo honek guztiak egoitza baten beharra du ezinbestean, eta Tolosaldeko bertsozaleetaren aterpe izango den txokoa bidean dela azaldu du Mikel Artolak: «Egoitza bat nahi dugu, baina era berean herri batetik bestera mugitu nahi dugu, herri batean zentralizatu gabe. Hala ere, ziurrenik Tolosa izango dugu egoitza; udalarekin harremanetan jarri gara, eta bidean da guztia».

## Hilabeteetako lanaren fruitua

Duela ia bi urte sortu zen, egitasmoaren ideia: «Hasieran Alegialdean egiteko asmoa izan genuen, baina Tolosaldeko bertso eskola indartu zegoela ikusita, eskualde-ara zabaltzea egokia iruditu zitzaizkigu».

Horrela, Azpeitia, Azkoitia eta Errezilgo bertsozaleak biltzen dituen Erniarrait Bertsozale Elkarteak oinarri hartu, eta lekuan lekuko desberdintasunetara egokitu dute, Tolosaldeko bertsozaleen sarea osatzeko proiektua.

[www.inmosalbide.com](http://www.inmosalbide.com)



**Aia.** Baseria berritu berria. 125m<sup>2</sup>-ko bi solairu ditu. 25 m<sup>2</sup>-ko terraza. Terrenoa, 110.000m<sup>2</sup>. 50.000.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

**Bergara.** Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukialdea, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!

**Donostia.** Amara-Amezketak kalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Itxina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

**Iraeta.** Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Azken Portu. 92m<sup>2</sup> ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria. 54.000.000 pezeta.

**Zarautz.** SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96

**Inauterietako Argazki lehiaketa**

bidali argazkiak:

[thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info)  
helbidera martxoaren 3a bitarte

**Inauterietak 13**

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak KAZETARIA behar du ordezkapen bat egiteko eskakizunak:**

- Kazetaritza, Euskal Filologian eta Ikus-entzunezko komunikazioaren lizentziatua edo ikaslea
- EGA edo baliokidea den euskara maila izatea

**kontutan hartuko da:**

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Gidatzeko baimena eta kotxea izatea

Curriculum-a bidali helbide honetara otsailaren 22a baino lehen [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

# Azken ostirala bizi osorako espetxe zigorraren aurka

197/2006 doktrina martxoaren 20an berraztertuko du Estrasburgoko epaitegiak

## Asier Imaz

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri gehienetan elkarretaratzeak egingo dituzte gaur, ohiko leku eta orduetan, Herrira-k deituta. Bizi osorako espetxe zigorra sala-

tuko dute mobilizazioetan, Herrira-tik azaldu dutenez: «Datorren martxoaren 20an, Estrasburgon, Europako Giza Eskubideen Auzitegiako Areto Nagusiak Ines del Rio euskal herritarren auzia berraztertuko du». Aurrez, epaitegi berak 197/2006 doktrina atzera botatzeko eskatu zion Espainiari, hain juxtu, Del Rioren auzia aztertu ondoren. Auzitegiaren erabakia betetzen ez zela ikusita, kasua berriz aztertuko dute martxoan. Aipatu, Pello Odriozola tolosarrari doktrina bera aplikatu

ziotela espetxean mantentzeko. Herrira-tik azaldu dutenez, «197/2006 doktrina indargabetzea ezinbestekoa da euskal preso politikoek bizi duten muturreko egoera amaitzeko». Europari mezu argia igorri nahi diote euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko mugimendutik: «Euskal gizartearen gehiengoak bat egiten du Estrasburgoko Auzitegiak uztai-lean emandako epaiarekin, eta babestu egiten du, konponbiderako prozesuari begira aktibo bat dela irizita».

## ↓ Azken ostirala

### GAUR

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Altzo.** 20:00etan.
- **Amezketeta.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 19:00etan.
- **Berrobi.** 19:30ean.
- **Berastegi.** 19:30ean, herriko plazan.
- **Bidegoian.** 19:00etan Goia-

tzeko autobus geltokiaren aurrean.

- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Irura.** 19:30ean, plazan.
- **Gaztelu.** 19:30ean, plazan
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Leitza.** 20:00etan.
- **Leaburu.** 20:15ean.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.

## Irudia » Amasa-Villabona



## AIZKARDIKOEN IRTEERA

Amasa-Villabonako Aizkardi Mendi Taldeak mendi irteera egin zuen iragan igandean. Nafarroako Zubieta eta Beruete arteko ibilbidea egin zuten, eta eguraldia lagun izan zuten. Aizkarditik azaldu dutenez, ibilbidean zehar paisaia ederrez gozatu zuten, nahiz eta elurraren ondorioz ireberko tontorrik ez zuten zapaldu. Irudian, mendizaleak Gorostietan ikus daiteke. HITZA

## Irudia » Alegia



## DONEJAKUERI BEGIRADA

Alegiako Erretirodun tabernan Sara Gomez amezketarraren argazki erakusketa dago ikusgai, martxoaren 3a, igandera arte. Donejakue bidearen inguruko bilduma jarri du Sara Gomezek. Argazkiak txuri-beltzean eta kontraste handikoak direla azaldu du amezketarrak. Bidaia 2012ko ekainean egin zuen Gomezek, eta bertan osatu zuen bilduma. SARA GOMEZ

## → Laburrak

### Astehenean hasiko dira errepidea konpontzen

**GAZTELU** » Astehenean hasiko dira Gaztelura doan errepide nagusiko lanak. Gipuzkoako Foru Aldundiak datak ez ditu zehaztu nahi izan, errepideak azken egunetan okerrera egin baitu zati gehiagotan. Lanak irauten duten bitartean errepidea ez izatea da asmoa.

### Iturrigoxo Jatetxea kudeatzeko aukera

**AMASA-VILLABONA** » Amasako plazan dagoen Iturrigoxo Jatetxea berriz martxan jartzeko udalak baldintzak argitaratu ditu. Informazioa [www.villabona.eu](http://www.villabona.eu) webgunean dago.

**Irudia**



**HAMAR URTE GEROAGO**

*Euskaldunon Egunkariaren* itxieraren hamargarren urteurrenaren harira, **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariaren erredakzioan bertan mahai ingurua egin zen, asteazkenean. Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendari ohia, Lorea Agirre *Egunkaria*-ko langile ohia eta Joxemi Saizar *Eguneroko* egunkariako zuzendari ohia izan ziren gonbidatuak. Ordubeteko solasaldia zuzenean ikusi ahal izan zen [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info) atarian. I. TERRADILLOS

**→ Laburrak**

**Txintxarriren kontzertua bihar, Trintxerpen**

**ALEGIA** ▶ Alegiako Txintxarri abesbatza azken entseguak egiten ari da, bihar Trintxerpen eskaini behar duen kontzerturako. Bertako abesbatzarekin duen harremanetik sortu da emanaldia eskaintzeko aukera. Trintxerpeko Karmengo Amaren Parrokian izango da 20:00etan. Garbiñe Orbegozo herritararen zuzendaritzapean abestuko dute.

**Korrika kulturalaren barruan musa eta ginkana**

**IKAZTEGIETA** ▶ Korrika dela eta, eskualdeko hainbat herritan mus txapelketak jokatu dira. Bertako irabazleek, gaur, 22:00etatik aurrera finala jokatuko dute Ikaztegiatiko herri Ostatuan. Korrika materiala erosteko aukera egongo da. Bihar, 16:30etik aurrera, berriz, ginkanaren finala jokatuko da Ikaztegiatan bertan. Tolosaldeko lau taldek parte hartuko dute, eta testiguaren bila ibili beharko dira herrian zehar. Hau dela eta, materiala saltzeko mahai bat jarriko da plazan.

**Ekozinemaldia izango da hilaren 26tik 28ra Leidor zine aretoan**

Ekologistak martxan taldearen eskutik antolatu da, eta lehen bi egunetan sarrera doakoa izango da

**Erredakzioa** Tolosa

Zor Ekologiko batzordearen eskutik, datorren astean, hiru eguneko Ekozinemaldiaz gozatzeko aukera izango da Tolosako Leidor zine aretoan.

Asteartean, hilak 26, 20:00etan, Leidor zine aretoan *Euskal Herria: Ezkutuko Zorra* eta *Berandu baino lehen* ikusteko aukera izango da. Euskaraz dira, eta doakoa izango da sarrera. Asteazkenean, eta ordu berean, *Del viento al azul* eta *Los Naua* gaztelaniazko bertsoan eskainiko dituzte, doan.

Ostegunean, berriz, 20:00etan hasita, zineklubaren barruan, *Bazen behin uharte bat* ingelesez eskainiko dute baina euskarazko azpittitluuekin, eta *Habia una vez una isla* ikusteko aukera izango da. Kasu honetan, sarrera ordaindu egin beharko da.



4. Kabaret emanaldia iragartzeko egin duten kartela. HITZA

**Kabaret ikuskizuna bihar Asvinenean**

Antzerkia, hip hop dantzak, magia eta aire akrobaziekin osatu dute ikuskizuna; 22:00etan hasiko da Adunan

**Eneritz Maiz** Aduna

Asvinenea Arte Eszenikoen laborategiak 4. Zirkoko Kabareta ospatu du, larunbatean, hilak 23. Egitarau oparoa prestatu dute bertako kideek nahi duenak bertara joan eta ikuskizunaz gozatzeko.

Adunan duten egoitzan izango da emanaldia, eta parte hartzaile ugari pasako da taula gainetik. Antzerkia Hernanikoaren eskutik izango da, hip hop dantzak Slowww taldeak eskainiko ditu, magia egitea Txan Magoaren lana izango da eta aire-akrobazien ikuskizuna Expresamente bikoteak egingo izango da.

Gala 22:00etan hasiko da eta sarrera-laguntza bost eurokoa izango da. Informazio gehiago [www.asvinenea.com](http://www.asvinenea.com) webgunean, facebook orrialdean edota [asvinea@gmail.com](mailto:asvinea@gmail.com) helbidera idatziz eskuratu daiteke.


**ARRIARAN**  
—1949—

ESTACION DE SERVICIO ARRIARAN, S.L.  
LARRAMENDI, 28; 38 posta kutxa  
20400 TOLOSA (GIPUZKOA)  
TEL. (943) 67.48.28 - FAX. (943) 67.49.82  
[www.arriaran.com](http://www.arriaran.com)



Soterramenduko obrak dirauen bitartean

**ABANTAILA HOBERENETAZ BALIATU ZAITEZ!!!**



ALDI BATERAKO SARBIDEA ARRIARAN GASOLINDEGIRA, NORABIDE GUZTIETARA JOATEKO AUKERAREKIN ACCESO PROVISIONAL A LA E.S. ARRIARAN, CON POSIBILIDAD DE ACCEDER A TODAS LAS DIRECCIONES

TXARTELEKO DESKONTUA  
**%50AN GEHITU**



**GARBI EZAZU ZURE KOTXEA DOHAIN**  
ARRIARAN GASOLINDEGIAN GASOLINAZ HORNITUZ GERO



\*OHARRA: Informa zaitez promozio honetaz Arriaran gasolindegian.

**Alkizako herri Ostata**  
San Martin plaza s/n.  
Tlf: 943 49 14 30-ALKIZ

**Manent**  
taldearen kontzertua

**25 URTE ZUREKIN**  
eskeintza bereziak!

**Irudi**  
LEAPAINDEGIA

**Irudi**  
Reapaindegia  
Eskaintza bereziak  
Izanaztegia 1  
Tlf: 943 674 526  
TOLOSA



Auto klasikoak ikusteko aukera egongo da bihar, Tolosan. HITZA

## Auto klasikoaren ikusgarritasuna

Tolosako Geltoki Plazan geldialdia egingo dute 13:30etik 15:30era; Facundo Vitoriak hitzaldia eskainiko du

Asier Imaz Tolosa

Don Bosco goi mailako lanbide heziketako institutuak eta Real Automovil Club Vasco Navarrok antolatuta, ibilgailu klasikoaren III. Don Bosco Ibilaldia egingo dute bihar, eta Tolosan geldialdia egingo dute eguerdian.

125 auto eta 15 motor abiatuko dira Errenteriatik 11:30ean, Tolosaruntz. Eguerdian iritsiko dira Geltoki plazara, 13:30ak aldera.

Parte hartzaileek Lapurdi plazan bazkalduko dute, udalak egokitutako karpa batean.

Antolatzaileen esanetan, bi arrazoi nagusigatik aukeratu dute Tolosa helmuga gisa: «Bateatik, hemendik aurrera Don Bosco goi mailako lanbide heziketako institutua arduratuko delako Paper Eskolaren kudeaketaz. Eta bestetik, Tolosan auto klasikoekiko afizio handia dagoelako».

Bazkalostean, 15:30ean, Geltoki plazatik itzulerako bideari ekingo diote, Errenteriruntz. Eguna amaitzeko, Facundo Vitoria tolosarrak hitzaldia eskainiko du Errenterian. Bertan, Dakar rallyetan kamioiarekin bizitako esperientziak kontatuko dizkie parte hartzaileei.

## → Laburrak

### Trinketeko eskuz binakako partidak jokoan, bihar

**IRURA** › Irurako Ametsa trinketeen Gipuzkoako Eskuz Binakako Txapelketaren partidak jokatuko dira, bihar. Guztira sei partida jokatuko dira, 14:15ean hasita: kadete mailako bat (finalerdia), jubenil mailako bi (lehenengo fasekoak) eta nagusien 1. mailako hiru (lehenengo fasea). Eskualdeko talde bakarra ariko da lehiatzen, Amasa-Villabonako Behar Zana, jardunaldiaren bosgarren partidatan.

### Halterofilia jardunaldia, bihar, Olaederran

**VILLABONA** › Olaederra Kiroldegian Euskadiko Ligako halterofilia jardunaldia jokatuko da, bihar. Maila nagusikoek parte hartuko dute eta 17:00etan hasiko da.

### Aurrera Saiazeko kideek, denetariko emaitzak

**PILOTA** › Aurrera Saiaz pilota elkarteok denetariko emaitzak lortu dituzte aurreko asteburuan. Euskal Herriko Txapelketan hamar partida jokatuzituzten, horietako bat elkarte-ko bi talderen artean. Guztira, zazpi partida irabazi eta lau galdu zituzten. Udaberri Txapelketan, berriz, hiru partida irabazi eta bi galdu zituzten. Azkenik, Gipuzkoako Txapelketaren barne, zortzi partida jokatuzituzten. Horietatik bat irabazi eta zazpi galdu zituzten.

### Erreklamazioak jartzeari buruzko hitzaldia

**TOLOSA** › Nola eta zergatik aurkeztu dezake erreklamazio bat enpresari edo autonomo batek?: irtenbideak izeneko hitzaldia emango dute, hilaren 25ean, 13:30ean, Tolosako kultur etxeko lehen solairuan. Ainhoa Orrantia, Jose Luis Erviti eta Agus Aduriz izango dira hizlariak. Besteak beste, Tolosaldea Garatzenek antolatu du solasaldia.

### Lau partida dituzte Intxurrekoek etxean

**ALEGIALDEA** › Intxurre pilota elkarteok lau partida jokatuko dituzte asteburuan etxean. Gaur, Alegian, hiru partida jokatuko dituzte, 19:00etan hasita. Gipuzkoako Txapelketan, eskuz binaka infantiletan, Intxurre 3k Zumaia len aurka eta Intxurre 1ek Oiarpe 4ren aurka jokatuko dute. Udaberri Txapelketan, jubenilen 2. mailan, Intxurrek Zestoaren aurka jokatuko du. Bihar, Ikaztegietan, partida bat jokatuko dute, Udaberri Txapelketaren barruan: Intxurrek Añorga 2ren aurka jokatuko du, nagusien 1. mailan.

### Xare txapelketetako bigarren jardunaldia, etzi

**IRURA** › Irurako Ametsa trinketeen, xare txapelketetako bigarren jardunaldia jokatuko da etzi. 16:30ean, Beteranoen Share Txapelketaren bi partida jokatuko dira. Ondoren, 18:00etan, Share Elkartearen Sariaren bi partida izango dira jokoan.

## Bidegoianen hasiko da gurpil aulkiko pilota txapelketa, igandean

Gipuzkoa mailako txapelketa izango da, pilota federazioak eta kirol egokituen federazioak antolatuta

**I. Garcia Landa** Bidegoian

Gurpil aulkiko Gipuzkoako Pilotari Txapelketa igandean hasiko da, Bidegoianen. Herrialdeko pilota federazioak eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak antolatu dute txapelketa. Lau bikote hartuko dute parte eta jardunaldi bakoitzean bikote guztiak guztien aurka jokatuko dute, hau da, sei partida guztira. Partida irabaztea bi puntu, galtzea puntu bat eta ez agertzea 0 puntu suposatuko du. Aurreneko hiru jardunaldiak amaituta, lehenengo eta bigarren sailkatuek finala jokatuko dute.

Igandean izango da, beraz, lehen jardunaldia, Bidegoianen. 11:00etan hasiko dira partidak. Bigarren jardunaldia Donostian izango da, martxoaren 16an. Apirilean egingo da hirugarren jardunaldia, Soraluzen. Azkenik, Usturilen jokatuko da finala eta hirugarren eta laugarren posturako partida, Soraluzeko jardunaldia jokatuko da hamabost egunetara. Ligaxkan 15 tantora jokatuko dira partidak eta finalean 25 tantora.



harpidedun izateak badu saria  
saridunak

### 1 Zabala Sagardotegia

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari

Angel Errondosoro  
Altolagirre (Anoeta)  
Begoña Garmendia  
Izagirre (Ikaztegieta)

Garagartza baserria  
Aduna  
Tel.: 943 69 07 74  
www.zabala.com



### 2 Sarasola Sagardotegia

Bi lagunentzako bazkari edo afaria

Mari Jose Amonarriz  
Galdos (Tolosa)



Asteasu  
Eskara egiteko, 2 hilabete: Tel.: 943 69 02 83

### 3 Donostiako Aquariuma

Bi lagunentzako bina sarrera

Iosune Sanz Vidal (Tolosa)  
Jorge Ecelza Ifurrita (Villabona)

Saridunek bina sarrera izango dituzte  
leihatilan 2 hilabetez



AQUARIUM  
BIBOTIC-AR SARRERAK  
www.aquariumss.com

# Gaztetxearen 20 urteak ospatzeko festa izango da martxoaren 1ean eta 2an

Ibarrako Gazte Asanbladak, Subegi elkartearekin batera, ekitaldi ugari antolatu ditu

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Ibarrako Gazte Asanblada hasia da gaztetxearen 20. urteurrena ospatzen. Hainbat kontzertu izan dituzte, eta baita antzerkia ere, eta orain urteurren festa egingo dute, martxoaren 1ean eta 2an, hainbat ekitaldirekin, Subegi elkartearekin elkarlanean.

Gazte Asanbladatik adierazi dutenez, festa berezi hau azken urteetan gaztetxetik igaro diren belaunaldi desberdinekin batera ospatuko dute: «Elkarrekin ospatu nahi dugu udaberriaren etorrera, gure helburua Ibarrako belaunaldi desberdinekin jai egun ederra pasatzea baita». Halaber, Ibarra nahiz inguruko «gazte eta ez hain gazte guztiak» gonbidatu dituzte bai bi egun horietan bai eta urtean zehar antolatuko dituzten ekintzetan parte hartzera.

Rap eta hip hop musikaren bidez errealtatearen kritika egiten



Ibarrako Gazte Asanbladako kideek herenegun eginiko agerraldiaren une bat. I. TERRADILLOS

duen Pablo Hasel kataluniarrarekin solasaldia izango da hasteko, ostiralean. Larunbatean, berriz, egun osoko jaia egingo dute. Eguerdian gaztetxoentzako emanaldia izango da, ondoren herri bazkaria, bazkalostean bertso poteoa eta gauean kontzertuak.

Kontzertuetako sarrerak 5 euroan eskura daitezke Ibarrako Zubiaurren, Atarin, Gaztetxean, eta Alaiaren eta Tolosako Denaken, eta bazkarirako zerrendak, berriz, Zubiaurren, Atarin eta Subegi jarri dituzte.

## ↓ Egitaraua

### MARTXOAK 1, OSTIRALA

- **19:32.** Hitzaldi tertulia Subegi elkartearen, Pablo Haselekin: *Arte revolucionario*.
- **Ondoren.** Afari merienda Subegin.

### MARTXOAK 2, LRUNBATA

- **12:03.** Zirkoloretsua gaztetxo-

ei zuzendutako ikuskizuna izango da ikusgai Ibarrako plazan.

- **14:29.** Herri bazkaria Subegi elkartearen.
- **Bazkalostean.** Bertso poteoa herrian zehar, Eneritz Zabaleta eta Xumai Murua bertsolariekin.
- **22:01.** Kontzertuak gaztetxean, Pablo Hasel eta Vendetta taldearekin.

## → Laburrak

### Udaletxe berritua ikusteko aukera, etzi herritarrek

**BERASTEGI** Zahar berritze lanen ostean, etzi izango dute berastegiarek udaletxea nola geratu den ikusteko aukera. 11:00etan ateak zabalduko dituzte, eta nahi duen orok bertaratu ahaliko du barrualdea ikustera. Martxoan hasiko dira udal zerbitzuak martxan.

### Tolosa Kantari kantu jira izango da bihar goizean

**TOLOSA** Tolosa Kantari kantu jira izango da bihar, Tolosako kaleetan. Ohi bezala, 12:00etan egin dute hitzordua, Tontokalen eta ia ordu pare batez ariko dira euskal kantak abesten Alde Zaharrean.

### Iparorratza erabiltzen ikasteko ikastaroa, Oargin

**TOLOSA** Oargik iparorratza eta mapak erabiltzen erakusteko ikastaroa antolatu du. Otsailaren 25 eta 27an eta martxoaren 1 eta 2an izango da Oargi elkartearen. 40 euro ordaindu beharko da parte hartzeko, eta [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidera idatzita, edo 688 698 642 zenbakira deituta eman daiteke izena.

### Zine ziklo berriko bonuak salgai bihurtik aurrera

**TOLOSA** Bihar jarriko dituzte salgai zine ziklo berriko bonuak. 11:00etan zabalduko dira Leidorreko leihatilak eta 13:00ak arte egongo dira irekita. Batetik, 700 bonu edozein saiora joateko aukera eskaintzen dutenak izango dira, eta bestetik, 500, saio guztietara, igande arratsaldekoetara izan ezik, gainontzekoetara joatea ahalbidetzen dutenak. Bonu sistema berriarekin, edozein saiorako bonurik gabe geratzen direnei ere aukera hobea ematea lortu nahi dute. Edozein saiorako bonuak 12 euro balioko du, eta besteak 10 euro.

## Irudia ▶ Bidegoian

### HEZKUNTZAKO MURRIZKETEN AURKA

*Ostegun beltzak* lelopean, beltzez jantzita, hezkuntza sailean eman diren murrizketen aurka protesta egiten ari dira hainbat ikastetxetan —irudian, Bidegoiango eskolan—, guraso elkarteek eta irakasleek deituta. Geletan haur gehiago sartu dituztela edota ordezkapenetarako jarritako baldintzak kasirako dituztela salatu dute, besteak beste. HITZA



## 📍 Hilberriak eta urteurrenak

### ESKELAK

943-65 56 95  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



XV. URTEURRENA  
**ETXAHUN GORROTXATEGI ZUAITZ** gaztea

Maite ditugunak ez baitirade sekula galduek: bizi dira gurekian gure bihotzaren baxean.

Etxekoak eta lagunak

SABINA, 2013ko otsailaren 22a



**IXASKUN**

Zine adiskide tolosaren errotzuzpean berriak guretzat izango dira

IBARRAKO LAGUNAK



GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	4°
HOTZENA	2°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak**

**BERTAKO  
SM-ko kideak:**



**Galtzaundi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## NATUR HOUSE

Elikaduran eta dietetikan adituak



**Zure giltzurruna  
da gehiegikeriak  
pairatzen dituen**

## ZURE ORGANISMOA GARBITU

Alkatxofa, errefau beltza eta kamamila estraktuek zure organismoa garbitzen laguntzen duten ezaugarriak dituzte; gainera, modu progresiboan, pisua galtzen lagun dezakete.



**Kupoi hau ekarri eta LEVANAT PLUS erostean FIBROKI gaileten kaxa bat emango dizugu opari Tolosako Naturhouse dendan (Nafarroa etorbidea, 1 Tel. 943 650 795).**

**NATUR HOUSE**  
Elikaduran eta dietetikan adituak



Jarrai gaitzazu Facebook orrialdean  
[www.facebook.com/Spain.NaturHouse](http://www.facebook.com/Spain.NaturHouse)

[www.naturhouse.com](http://www.naturhouse.com)

\* Kupoia 2013ko otsailaren 28ra arte erabili daiteke **HTZT**